

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

KOMUNIKAZIO BIDEAK

Honako komunikazio bideak definitu ditugu gure bezeroekin komunikatzeko:

Alde batetik publizitatearen bidez, kartelak kaletik itsasten gure produktua jaietan egongo dela jakinaraziko dugu eta baita triptikoak etxeetara bidaliko ditugu proiektua aurkeztuz. Bestetik, jaietako programazioan ere jarriko dugu zerbitzuaren iragarkia eta sare sozialak publizitate gune bezala ere erabiliko ditugu.

BANAKETA BIDEAK

Gure kasuan, kaleko leku finko batean, jaietan eskuragarri dena, jarriko ditugu kontainer hauek, eta nahi dutenek horra joan ahal izango dira. Gure kontainerra beraz beti bezeroentzat eskuragarri egongo da, gazteek elkargune bezala erabiltzen duten lekuetan. Hau da, herri bakoitzeko leku ospetsuetan non danak batera elkartzeko gelditzen diren. Kokaleku egokia zehaztea herri bakoitzean funtsezkoa da.

